



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
KARMELO IKASTOLA IPI

Ikastetxearen kodea:
014510

Data:
2023(e)ko ekainaren 13(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Karmelo ikastolak 50 urte baino gehiagoko, luzeko ibilbidea darama Bilboko Santutxu auzotik eta auzorako hezkuntza proiektu sendoarekin, beti ere integrazioa, euskaltzaletasuna eta euskara ikur dituelarik.

Santutxu izaera langilea duen auzoa da, oso anitza izan ere egon da epe bat non maila ekonomikoa tartekoa zen; momentu honetan krisialdi ekonomikoa bultzatuta arlo ekonomikoan ere aldaketak egon dira eta askotan, ikastola bera bilakatzen da auzoko gizartea egituratu eta batzeko esparrua.

Ibilbide horretan aurrera egiteko asmoz, IPI bezala egituratuta gaude eta 642 ikaslek eta 72 irakaslek osatzen ditugu HH, LH eta DBHko etapak. Karmelo ikastola ikastetxe integratu eta integratzailea da, eta 3 lerroko zentroa bilakatuko gara hazkunde naturala eta begetatiboari jarraituz, 2023-2024 ikasturterako HH4ra arte 3 lerro izango ditugularik. Gaur egun, bi eraikin desberdinetan kokatuta gaude, HH-LH eraikin batean eta DBH Mina del Moro - Larreagaburu izan den eraikinean.

Momentu honetan Santutxu auzoak populazio aldaketak izan ditu eta aniztasuna da gehien definitu duen hitza; errealitate horren jakintza dugu eta, gure zentrotik, gure esku dauden baliabideak erabiliz eta ikas komunitatearen eragile guztien parte hartzea bultzatuz ikasle profil jakin bat lortu nahi dugu: pertsona euskalduna beste hizkuntzak ezagutu eta errespetatzen dituen, gai dena aniztasunetik abiatuta norbanako bereiztasunetara joan errespetua oinarri izanda, giza baloretan hezitua dena eta teknologia berriak era arduratsu batean erabiltzen duena; arlo akademikoetan kompetentea eta elkarbizitzarako estrategiak dituen eta praktikan jartzen dituen.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastolan bi eraikin ditugu elkarren ondoan, baina zerbitzari bakarra, bi eraikinak zuntz optikoaren bidez konektatuta daudelako. Barneko dokumentuak, fotokopiagailuak (4) eta interneteko konexioa konpartitzen dugu sare honen bidez. Gaur egun erreferentziakzko gela guztiez gain, gela berezi gehienak hornituta daude sareko konexioa duen ordenagailu batekin eta arbela digitala edo monitore elkarreragileekin. Zuzendaritza, administrazio lanpostuetan, irakasle geletan eta mintegietan ordenagailuak eta inprimagailuak daude erabilgarri. LH5etik aurrera ikasleek ordenagailu eramangarri bana eskura dute lan egiteko, eta baita ere nahi duten irakasleek. Neurri handi batean baliabide digitaletan oinarritzen gara funtzionatzeko, eta orokorrean ondo moldatzeko modua daukagula esan daiteke.

Plataforma batzuk erabiltzen ditugu funtzionamendu arrunterako:

* INIKA: familiarekin eta irakasle on artean komunikatzeko, notak eta faltak kontrolatzeko, ikasleen jarraipena egiteko (NJP, koaderno digitala...), zaintzak kudeatzeko etab.

* Google Workspace for Education: Ikasleekin gelan lanak esleitu eta kalifikatu, materiala eskaini, ikasleekin komunikatu...

Plataforma honi oinarria emateko enpresa batekin kontratatutako karmeloikastola.eus dominio propioa daukagu.

* Office 365 (irakasle.eus): Hezkuntza Sailak antolatutako formakuntza eta jarduerak egiteko.

* Hezkuntza Saileko aplikazio ofizialak: COCU, inbentarioa, matrikula, jantokia...

Barneko eta kanpoko ahozko komunikaziorako VoIP telefonoak ditugu.

Mantenua IKT bi arduradunen artean daramagu CAU zerbitzu teknikoaren laguntzaz atal guztietan. Fotokopiagailuen mantenua kanpoko bi enpresek daramate.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Gaur egun, eta are gehiago etorkizunean, pertsona orok beharrezkoak ditugu hainbat gaitasun digital gure bizimoduan aurrera eramateko, oinarriko funtzionamendu arrunt ugari era horretan egiten baitira. Hortaz, gure ikasleek kalitatezko oinarriko hezkuntza jasoko badute, ezin dute digitalki herrenak izan, eta irteera profilean ezinbestean jaso behar dira gaitasun hauek.

Plan honek definitu behar du gure ikasleek lortu behar dituzten gutxienekoak mundu digitaletan eraginkorrak izateko Karmelo Ikastolan ikasketak bukatzen dituztenean, beti ere DigComp markoa iparorratza izanik.

Helburu nagusia ez da gure ikasleak aditu informatikoak izatea, baizik eta beste zerbait simple bezain garrantzitsua: mundu digitaletan pertsona arduratsuak eta autonomoak izatea.

Pertsona arduratsuak izango badira, interneten jokaera zintzoa izango dute, eta beste erabiltzaileekin errespetutsuak izango dira, elkar zainduz eta hizkuntza ez-bortitza erabiliz. Era berean, erabiltzen dituzten interneteko edukien jabetza aitortuko dute egile-eskubideak errespetatuz.

Eta digitalki autonomoak izango badira, gai izan beharko dute informazioa aurkitu eta kudeatzeko, esparru ezberdinetan komunikatzeko, sormenez eduki digitalak sortzeko (testuak, irudiak, infografiak, bideoak...), arazo tekniko sinpleei aurre egiteko, eta hau guztia segurtasunez erabiltzeko, osasuna zainduz eta datu pertsonalak babestuz.

Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da irakasleok DigCompEdu-k zehazten dituen gaitasun digitalak barnerratzeko urratsak

ematea, ikaskuntza prozesuetan zein antolamendu jardureretan integratzen joateko. Alde honetatik formakuntza izango da zutabe bat, bestea ikastolak markatutako dinamikak eta jardunbideak osatzen dutelarik.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Plan honen hastapenak 2021-22 ikasturtean hasi ziren. Orduan erabilitako tresnak Selfie eta Selfie for teachers analisirako erremintak izan ziren. Bertan profesional bakoitzaren norbanako gaitasun eta erronka digitalak neur zitzakeen eta gauza bera egin genuen ikastola mailan Selfie-ari erantzunez.

Azken honekin egungo ikastolaren argazkia atera genuen, beti ere, DigCom Edu-ren helburuei begira. Honekin zentruaren ahulgune eta indarguneak identifikatu genituen eta hauetatik abiatuz, zenbait helburu zehaztu genituen.

Aurten, 2022-23 ikasturtean, curriculum berria lagun, Curridigiko A2 akreditazioan sartuta gaude . A2 ibilbidean alegia. Hau irakasleagoaren konpetentzia digitalen garapenean bultzada izan da, lan handia izateaz aparte.

Ikastaro honek barne antolamenduan aldaketak eragin dizkigu, Beatarrekiko koordinaketa eta irakasle on arteko laguntza kasu. Elkarrekiko Komunikazioa IKT Batzordean ematen da, non beharrak eta prozedurak eztabaidatu eta adosten diren, plan digitala barne. Hilabeteetan behin biltzen gara honetarako.

IKT arduradunak eragile nagusiak direlarik, ekimenak diseinatzen dituzte batzordekideen ekarpena eta laguntzarekin, eta honela etapa bakoitzaren beharrak eta helburuak jasotzen dira, ikastola integralaren ikuspuntua lortuz. Era beran, batzorde hau arduratzen da ezinbestekoa den irakasleontzako zein familientzako formazioa bideratzea.

Azken hilabeteetan, IKT batzordearen lantalde txiki bat osatu da plan digitalaren dokumentuaren erredakzioa lantzeko.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Digitalizazio plan honek gure ikastetxearen ikasturteko planeko digitalizazio eta gaitasun digitalari dagozkion ardatzak definitu eta bideratuko ditu.

Alde batetik, ikasleen konpetentzia digitala indartzea izango da gure oinarria, horretarako, irakasleen digitalizazio akreditaziorako egin beharko den formazioa gauzatuko delarik. Eta bestetik, IKT Mantentze-lanen kudeaketarako dauden estrategiak zabaldu eta bermatu behar izango ditu.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Gure egoeraren analisia 2021eko azaroan erabili genuen Selfie erremintaren emaitzetan oinarrituta dago. Berari esker egungo lan taldearen gaitasun eta ahuldadeen argazkia jaso genuen.

Irakasleok bere praktikari begira, nahiko konpetente ikusten zuen bere burua, DBH-n bereziki. Hobetzeko zeuden atal nabarmenenak ebaluazio praktikak eta lankidetzak eta sareak izan ziren. Aipagarria izan da bide batez, ikasleek haien buruekiko dute gaitasun maila, haiek uste baitute ezagutza zabala dutela arlo digitalean, agian bestelako arloak ez dituzte ezagutzen baina, konpetentzia honekiko motibazioa erakusten dute, hori bai.

Arloka begiratzen badugu, puntuazio baxuenak lortu diren atalak dira koordinazioa eskatzen dutenak, bai ikastetxe mailan non lidergoak gelan eraldaketa pedagogikoak sustatu ahal dituen, baita, eta batez ere, irakasle on arteko lankidetzak, eztabaida eta jarraipen metodikoak aurrerapausuak bermatzeko. Beste atal bat hobetzeko honakoa litzateke: ebaluazio praktiketan ikasle on arteko dinamika sortzea.

Zuzendaritzak dinamizazio, hornikuntza eta beharren bitartekari lanetan ibili daiteke, irakasle on konpetentzien eskuratzeko bidean behar diren antolaketa pedagogikoetan murgilduta egon daiteke eta ikasle on kasuan, erraminta digitalen erabilera hutsean egon daitezke. Hau da hiru taldeek ez dituzte guztiz ezagutzen gaitasun digitalen eskatzen dituzten konpetentziak eta hori dela eta haien arteko ikuspegia desberdina da oso.

Bestetik, plangintza edo estrategia eraginkor baten falta dugu ohiko dinamika batzuk ezartzeko, zeinari esker denon artean urratsak era koordinatuan eman ditzakegun.

Hezkuntza Komunitate osoaren arteko komunikazio digitalean elegante gabilta. Haatik, irakasle on jardunean erraminta digitalen erabilera erakusten dituzten aukera eta mehatxuen inguruan ezjakintasuna da nagusi.

Horren haritik, gelan ezarritako baliabide pedagogiko digitalen zein ikasle on gaitasun digitalen lorpena (komunikatu, edukiak sortu, jokaera arduratsua...) egun egunera hobetzen gabilta. Argi dago, beraz, irakasle on aldetik jarrera eta inplikazio onak direla gaitasun digitalen garatzeko bidean (etapan arabera desberdina izanik). Eta egoera ona bada ere, ikastetxe bezala ez ditu helburuak bermatzen, baizik eta unean dauden irakasle on arabera lortzen direla.

Irakasle on badugu elkarri zer eskaini, askok denbora baitaramagu bide hau urratzen, baliabide propioak zein irekiak biltzen. Estrategia argi bat falta da, eta honek eragotzen du alde batetik, egindako lan eskerga optimizatzea, eta bestetik, lan koordinatua egitea ikasle on garatu behar dituzten konpetentzia digitalen guztiak (DigComp) lantzeko. Aukera paregabea daukagu irakasle on barneko sarea edo dinamika osatzeko eta dagoeneko ezagutzen duguna partekatuta bakarrik elkarri laguntza handia eman eta emaitzak lortu ahal ditugu.

Egun DBH-ko ikasle guztiek Chromebookak dituzte. Honek, eten digitalen murrizteaz gain, nabarmen lagunduko du gelan zein etxean jarduerak digitalen errazago egiten.

Ikasle on gaitasunari begira, segurtasuna, informazioaren aztertzea, lege eskubideak, sareko segurtasuna eta arazo tekniko on aurretiko ebazpen gaitasuna zehazten dira hobekuntza behar dutenen artean.

Ikasketa mistoari dagokionez, familia guztien konpetentzia bermaturik ez dagoela azaltzen da, non irizpide indartsua den digitalki lan egiteko. Bestetik materialgintzan aritzeko denbora falta aipatzen da, eta azkenik, feedback edo atzeraelikadurak egiteko, lanen balorazioak egiteko, denbora falta ere, aipatu egiten da

Plan Digitalaren diseinuak konpetentzia digitalen lantzeko bidea argitu eta orokortzeko tresnak emango dizkigu eta tresna hauek aldi berean, Curriculum proiektuan eta programazioetan integratuko genituzke minimoak bermatzeko.

Arestian aipatutakoari helduz, honek guztiak agerian jartzen du Ikastolako Plan Digital estrategikoa lantzeko beharra.

Badakigu zenbat kostatzen duen ikastetxeko proiektu handiak martxan jartzeak. Alde honetatik, urtero irakasle on berri kopuru handian arrastoan sartzea, besteok oraindik dinamika erabat hartu barik daukagula oztopo bat izan daiteke behar bezalako koordinazioa lortzeko.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Elkarlanean zein baliabideen trukean eskas dabil irakasleoa

Estrategia falta

Konektibitate eskasa zenbaitetan

Arazo teknikoak ebazteko ezagutza eskasa

Segurtasuna bermatzen zein ebaluazio tresnen erabileran irakasleak eskas gabilta

Materialgintzan aritzeko ezagutza eta denbora eza

Ikaskuntza mistorako plangintza-antolakuntza eskas

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Aurrerapena eten edo moteldu irakasleen egonkortasun faltagatik

Irakasleak itotzea gainkargagatik

Kanpoko formazioak agian diru inbertsioa suposa lezake.

Urtez-urte teknologiak eskeintzen dituen aldaketekiko egokitzapen gaitasuna, etengabeko freskatzearen beharra

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Irakasleen inplikazioa

Baliabide pedagogiko propioak

Ikasleen autonomia

Irakasleak erabili izan ditu eta erabiltzen ditu tresna digital zenbait haien egunerokoan

Badira ezagutza zabala duten lankideak zeintzuk barne ikaskuntza susta dezaketen

Irakasleontzat barneko formazioa eraginkorra

- Azken lerroa ezabatu

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Adostasunez jarduteko aukera dugu baita irizpide pedagogikoak bateratzeko ere

Kohesio metodologikoa burutzeko aukera ematen digu digitalizazioak

Plan Digitala derrigorrez definitu behar; zereginak, atalak, ardurak,...

Arrakala digitala oso txikia izanda, ikasleen eskuragarritasun digitala ia erabatekoa

Metodologia berritzaileetan murgiltzeko bidea errazten da

Aniztasunari erantzun eraginkorragoa emateko aukera da

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Formazioa behar du irakasleriak
Estrategia diseinatu behar da elkarren ezagutzak zabaltzeko, partekatu eta irakas baliabideen barne biltegia eratzeko
Ikasleen motibazioari eutsi erronka digital berriak eskeiniz
Irakasleon irteera profila burutu Akreditazioen bitartez ea eguneroko jardunaren bitartez
Zuzendaritzak digitalizazio planari lehentasuna ematea, irakas praktikan islada positibo izan dezan eta esperientzia akademikoa arrakastatsua izan dadin

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Irakasleria formatu, tresna digitalen eskeintzen duten aukerak eta ikas prozesuan duten eraginaz jabe arazi
Antolakuntza on bat diseinatu ikasketa digitala modu koherente eta zentzudun batean burutzeko
Eskolak ondo definitu zelako irteera profila nahi duen ikasleekin, horrek hausnarketa indarberritzailea ekarriko duelarik eta estrategia sendoa izatea ahalbidetuko duelarik

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Irakasleak sarean lan egiteko sistema abiatu eta horrela aritu normaltasunez. Ikastolak sistema hau derrigorrez eskatu jardunean dagoen edozein irakasleari
Teknologiak eskatzen duen etengabeko eguneratze horren aurrean, irakasleen konpetentzia digitalari esker eta elkarlan sareei esker, egokitzapen eginkor bat berma daiteke barruko baliabideekin, hau da, irakasleon ezagutzen trukearekin.
Eskolak ongi zehaztua izatea nolako perfila lortu nahi duen bere ikasleengandik, efikaziari begira eta hiritar digitalki konpetenteak heziz.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Langileon ezagutzaz baliatu besteei ezagutza zabaltzeko.
Elkarlan sisteman antolatu irakasleen formaziorako
Partekatzen sistemek plantila batu eta kohesionatu egiten dute, non ezagutzen trukeak lantalde irmoagoa eta zentzudunagoa eratzten laguntzen duen.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Ikasleen irteera profila finkatzeko urratsak ematea LH-DBH		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	23-24 ikalksturte	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A1 Estrategia digitala dokumentu batean idatzi da.	Ehunekotan	23-24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastolako irteera profila dokumentua sortu LH-DBH	Google Drive	Zuzendaritza taldea	2023/09/29	Detektatua
Adostu mailan bakoitzean zer kompetentziak landuko diren LH-DBH	IKT batzordea	IKT batzordea	2023/09/29	Detektatua
Erabakiak Irteera profila dokumentuan jaso LH-DBH	Google Drive	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
Zikloka landu diren aspektuak zehazteko bilerak antolatu LH-DBH	Irakasleon bilerak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
Irakasleen artean ardurak banatu eta epeak zehaztu LH-DBH	Batzorde pedagogikoa	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Irteera profila osatuko duten jarduerak programazioetan islatzea LH-DBH

Deskriptorea

II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira

Epea

2024/06/21

Adierazlea

II 2.4 A1 Informazioa bilatu, antolatu, edukiak sortu, argitaratu eta ekoizpen digitalak partekatze alderdi

Mota

Ehunekotan

Helmuga

23-24
ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Maila bakoitzean esleitutako kompetentzia digitala gelan lantzeko jarduerak programazioetan jaso LH-DBH	Programazioaren txantiloia	Irakasleak eta ikasketa burutza	2023/10/31	Hasita (%1-19)

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleон gaitasun digitalak neurtzea eta horren arabera formazioa planifikatzea HH-LH-DBH

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2023/10/31

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Bai/Ez	23-24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Selfie for teachers galdetegia egin HH-LH-DBH	Selfie For teachers tresna	IKT batzordea	2023/10/31	Hasita (%1-19)
Galdetegiaren emaitzak jaso, interpretatu eta formazioa planteatu HH-LH-DBH	Emandako erantzunak	IKT batzordea	2023/05/31	Detektatua
Formazioa aurrera eraman HH-LH-DBH	Espazioak	IKT batzordea	2024/06/21	Detektatua

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ebaluazio prozesuetan baliabide digitalak txertatzea LH-DBH

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	23-24 ikasturtea

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek be	Ehunekotan	23-24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
LHko 4. mailatik aurrera (LH4 barne) maila guztietan Classroom ingurune birtualean jarduerak egin eta bertan txertatutako argibideak erabili (errubrikak) LH-DBH	Google Classroom	Klaustroa	23-24 ikasturtea	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Irteera profila osatuko duten jarduerak ikasleekin aurrera eramatea LH-DBH

Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	23-24 ikasturtea	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Ehunekotan	23-24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Maila bakoitzean esleitutako konpetentzia digitala gelan lantzeko jarduerak modu koordinatuan prestatu eta gelan gauzatu. LH-DBH	Tutoreek (LH) eta arloko irakasleak (espezifikoak eta DBH) aurrikusitako tresna digital anitzak eta irekiak. Irakasle bakoitzak erabakiko du	Klaustroa	2024/06/21	Hasita (%1-19)

Helburua

Gelan egiten diren jarduerak digitalizatzea, ahal den neurrian baliabide irekiak erabiliz eta bide batez irisgarritasuna hobetzea IDU irizpideak kontuan hartuz. LH-DBH

Deskriptorea	Epea	
EC 2.5 Curriculum arloen bidez argi eta garbi hornitzen da ikaskuntza digitala	2023/10/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.5 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digita	Ehunekotan	2023/24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Maila bakoitzean jarduera digital berriak prestatu eta programazioetan jaso LH-DBH	Baliabide bankuak, HBI errepositorioak, IDU irizpideak	Klaustroa	2023/10/31	Hasita (%1-19)

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Barneko eta kanpoko baliabide digitalak partekatzeko sistemak sustatzea eta aurrera eramatea HH-LH-DBH

Deskriptorea

EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da

Epea

23-24 ikasturtea

Adierazlea

EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko

Mota


Ehunekotan


Helmuga

23-24
ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleok erabiltzen ditugun baliabide digital propioak partekatu barneko sitesen HH-LH-DBH	Berariaz sortutako Sites eta Drive karpetak	IKT arduradunak eta Klaustroa	2024/06/21	Hasita (%1-19)
Ikastolako baliabide bankua aprobetxatu gelan antzeko jarduerak prestatzen laguntzeko HH-LH-DBH	Google Drive eta Sites	IKT arduradunak eta Klaustroa	2024/06/21	Hasita (%1-19)

AZ Azpiegiturak

Helburua		
Ikastolako azpiegitura informatikoa eguneratuta mantentzea eta sortutako arazoak ebazteko giza talde eginkorra bermatzea, lan hau egoki burutzeko berezko denbora eskeiniz eta beharrezko baliabide materialak erraztuz HH-LH-DBH		
Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	23-24 ikasturtea 	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko	Bai/Ez	23-24 ikasturtea

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Matxurak bidez komunikatzeko eta kontrola eramateko Inika plataforma erabili. Horren funtzionamendua klaustroari azaldu. HH-LH-DBH	Inika plataforma	IKT arduradunak	23-24 ikasturtea 	Hasita (%1-19)

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikasleen irteera profila finkatzeko urratsak ematea LH-DBH	1. hiruhilabetearen bukaeran	Irteera profila dokumentuan jasotakoa baloratu	IKT batzordea		
II	Irteera profila osatuko duten jarduerak programazioetan islatzea LH-DBH	1. hiruhilabetearen bukaeran	Programazioak berrikusi	IKT batzordea		
GP	Irakasleon gaitasun digitalak neurtea eta horren arabera formazioa planifikatzea HH-LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Beharrak detektatu eta formazioaren eraginkortasuna	Klaustroa eta IKT batzordea		
EJ	Ebaluazio prozesuetan baliabide digitalak txertatzea LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Irakasleek beteko duten inprimaki baten emaitzak baloratu	Klaustroa eta IKT batzordea		
EC	Irteera profila osatuko duten jarduerak ikasleekin aurrera eramatea LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Irakasleek beteko duten inprimaki baten emaitzak baloratu	Klaustroa eta IKT batzordea		
EC	Gelan egiten diren jarduerak digitalizatzea, ahal den neurrian baliabide irekiak erabili eta bide batez irisgarritasuna hobetzea IDU irizpideak kontuan hartuz. LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Irakasleek beteko duten inprimaki baten emaitzak baloratu	Klaustroa eta IKT batzordea		
EN	Barneko eta kanpoko baliabide digitalak partekatzeko sistemak sustatzea eta aurrera eramatea HH-LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Irakasleek beteko duten inprimaki baten emaitzak baloratu	Klaustroa eta IKT batzordea		
AZ	Ikastolako azpiegitura informatikoa eguneratuta mantentzea eta sortutako arazoak ebazteko giza talde eginkorra bermatzea, lan hau egoki burutzeko berezko denbora eskeiniz eta beharrezko baliabide materialak erraztuz HH-LH-DBH	Ikasturte bukaeran	Ikasturtean zehar izandako matxuren erregistroak kontsultatu	IKT arduradunak		
IB						